

2013ko uztailaren 16ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzen duena.

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Euskadiko Ehizaren 2/2011 Legeak, 13. artikuluan lurraldea hiru kategoriatan banatzen du: Ehiza lurrak, ehizarako ez diren lurrak eta ehiza-araubide bereziko lurrak. Gainontzeko lurraldeetan, uso migratzaileen eta birigarroen ehiza lurraldeei dagokien erregulazioaren arabera ehizatuko da. Gainontzeko lurraldeetan, hegazti migratzaileen ehiza lurraldeei dagokien erregulazioaren arabera ehizatuko da.

Ehiza xehearen barruan, Gipuzkoan ehiza modalitate hori oso errotua dago. Gipuzkoako lurraldearen ezaugarriak kontuan hartuta, hainbeste biztanle dituen lurraldea, eta ehiztari kopuru handia duena, beharrezkoa da lurraldeko ohiko pasabideetako lerro asko antolatzea eta kudeatzea.

Zirkunstantzia horietan, eta Lurralde Historikoak ehiza aberastasunaren aprobetxamenduari buruzko hartutako eskumenen arabera (Eusko Legebiltzarraren 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzkoa, 7.b.3 artikulua), Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko diputatuak ebatzitako 2007ko urriaren 27ko Foru Aginduaren bitartez, arautu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoko aprobetxamendu komuneko ehiza lurretan kokaturiko ohiko pasabideetan uso migratzaileen eta birigarroen ehiza.

Foru Agindu hori ebatzi ondoren bost urte baino gehiago igaro eta Euskadiko Ehiza Lege berria indarrean jarri ondoren, komenigarritzat jotzen da Foru Agindu hori aldatzea, ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza erregulatzeko, aipatutako legeak lurralde kalifikaziotara moldatuz eta ehiza modalitate horren kudeaketa hobetuko duten neurriak sartuz.

Horregatik guztiagatik, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak dituen ahalmenak erabiliz, 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legean, 7.b.3. artikuluan ezarritakoaren arabera,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Gipuzkoako ohiko pasabide eta postuen erregistroa sortzea eta atxikitzea.

1. Gipuzkoako ohiko pasabideetako lerro eta postu baimenduen erregistroa ezartzen da.

2. Ohiko pasabideetako lerro eta postu baimenduen erregistroa Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuari atxikiko zaio.

2. artikulua. Erregistroaren xedea eta helburua.

1. Gipuzkoako ohiko pasabideetako lerro eta postuen erregistroaren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko hegazti migratzaileak ehizatzeko baimendutako lerro eta postu guztiak inskribatzea. Hegazti migratzaileak horrela izendatuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza-espezieen zerrenda ezartzen duen 216/2012 Dekretuan.

2. Erregistroaren helburua da Gipuzkoako ohiko pasabideetako lerro eta postuei buruzko informazio guztia eguneratuta eta integratua edukitzea.

3. artikulua. Erregistroaren izaera eta ondorioak.

1. Gipuzkoako ohiko pasabideetako lerro eta postuen erregistroa administrazio izaera du eta Gipuzkoako Lurralde Historiko osorako publikoa, bakarra eta doan izango da

4. artikulua. Erregistroko datuak.

Erregistroak, gutxienez, honako informazioa jasoko du:

1. Ohiko pasabideei dagokienean:

— Izena.

— Udalerria.

— Baimendutako epea.

— Baimendutako postu kopurua.

— Elkarre kudeatzailea.

2. Postuei dagokienean:

— Postuaren zenbakia.

— Kokapen geografikoa (UTM).

5. artikulua. Lerro eta postuak sartzeko, aldatzeko eta ateratzeko eskaerak.

1. Lerro eta postuak sartzeko, aldatzeko eta ateratzeko eskaerak Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak, lursail jabeek edo bestelako interesdunek egingo dituzte.

2. Aurkeztu beharreko agiriak:

— Lerroaren izena

— Udalerriak

— Postu kopurua

— Postren kokapen geografikoa (UTM)

— Postuak kokatuta dauden lursaileen jabeak.

3. 5. Segurtasun-eremuetan postu finko berriak jarri ahal izateko, lurraren eta ondokoen jabeen baimena eduki beharko du, ondoko etxeak edo nekazaritza eta abeltzaintza instalazioak ukitzen dituen.

4. Ehiza-araubide bereziko lurren Ehiza Antolatzeko Planek jasoko dituzte Foru Agindu honen bidez sortutako erregistroan sartuta dauden ohiko pasabideetako lerro eta postuak. Naturgune babestuetan, lerro eta postuei buruzko edozein aldaketa, organo kudeatzaileak baimenduko du, Erregistroan sartzeko, aldatzeko edo ateratzeko eskaera egin baino lehen.

6. artikulua. Prozedurak ebaztea.

1. Erregistroan inskribatzeko prozedurak, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritakoarekin araberakoak izango dira.

2. Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak eskaerak ebatziko ditu, ehiza kudeaketa hobetzen duten irizpideak erabiliz. Erabakitakoa (baimena ematea edo ez ematea), bai eskatzaileari, bai lursailen jabeari jakinaraziko zaio, eta erabakitakoa erregistroan sartu, aldatu edo kendu egingo da, hala badagokio.

7. artikulua. Erregistroaren publizitatea.

1. Erregistroaren publizitatea idazpen ziurtagirien bidez egingo da. Edozein pertsona fisikok edo juridikok eskatu ahalko ditu inskribatuta dauden datuen ziurtagiriak.

2. Erregistroaren publizitatea www.gipuzkoa.net web orriaren bitartez ere egin daiteke. Edozein kasutan, hedabide horretan egindako publizitateak informazio edukia izango du, eta ez da agiri sinesgarria izango.

8. artikulua. Jabeen baimena.

1. Ehizan aritzeko eta Erregistroan jasotako lerro eta postuak antolatzeko Gipuzkoako Ehiza Federazioak, dagokion elkarte kudeatzailearen bitartez, lursail jabeen baimena lortuko du postuak instalatzeko.

Jabeak ez badu aurreko paragrafoan aipatutako baimenik eman nahi, postu horiek balio gabetzat joko dira ehizan erabiltzeko.

2. Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuak artikuluko honetan xedatutakoa betetzeaz arduratuko da, ohiko pasabideetako ehiza behar bezala baimendutako eta erregistroan jasotako postuetan bakarrik egiten dela egiaztatuz.

9. artikulua. Lurjabeei kalte-ordaina ematea.

Gipuzkoako Ehiza Federazioak eta pasabideak kudeatzen dituzten elkarteek kalte-orainak eman behar dizkiete lurren jabeei postuak jartzeko baimena eman dutelako eta ehizatzen ari direla kalteak egin ditzaketelako.

Gipuzkoako Ehiza Federazioak baimendutako pasabide bakoitzean erabakitako konpentsazio neurrien eta postuak jarrita dauden lursailen jabeekin egindako akordioen berri eman behar dio Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuari.

10. artikulua. Kokapena eta segurtasun distantziak.

1. Tokian tokiko usadio eta ohituren arabera, tiroketa postuak mendikateen gailurretan edo mendi magaletako goi lekuetan egongo dira, eta tokirik egokienetan ehiza ahalik eta hobekien aprobetxatu ahal izateko, eta erregistroan sartutakoez gain ezingo da bestelako posturik jarri.

2. Lerroan kokaturiko postuen artean 50 metroko tartea utzi behar da gutxienez, segurtasun guneetan sartu gabe. Postu lerroaren aurrealdean, pasabidea nondik norakoa den, ezingo da ehizan aritu, ez eta 500 metroan eskopetarekin ibili ere, eta gauza bera atzaldetik 120 metroan. Era berean, baimendutako postu bakoitzean ezingo dira kargatutako bi eskopeta baino gehiago eduki.

Segurtasun tarte horiek, ehiza-araubide bereziko lurrentzat aldatu daitezke dagokien Ehiza Antolatzeko Planetan.

11. artikulua. Antolakuntza eta zozketa.

1. Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren tutoretza eta kontrolpean, Gipuzkoako Ehiza Federazioak kudeatuko ditu erregistroko ohizko pasabideetako lerroak, baimendutako ehiza barrutiak izan ezik. Kasu honetan kudeaketa ehiza aprobetxamenduaren titularrari dagokio, ehiza barrutiaren Ehiza Antolatzeko Planera moldatuz.

Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak ehiza eteteko erabakia hartuko du, osorik edo zati batean, aipatutako lerroetan, dagokion prozedura agindu ondoren, ehiza kudeaketa dela, espezieak zaintzea dela edo ondasun eta pertsonen egindako kalteak direla. Etenaldia, Gipuzkoako Ehiza Federazioari jakinaraziko zaio, elkarrekin kudeatzaileen bitartez lerroen kudeaketan aplikatzeko eta kalte ordaina jasotzeko eskubiderik ez izateko.

2. Euskal Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuaren 17. artikuluan jasotakoaren arabera, Gipuzkoako Ehiza Federazioak pasabideen antolakuntza eta zozketa kokaturik dauden udalerriko ehiza elkarten esku utzi ahal izango ditu.

Kudeaketa mandatua, Gipuzkoako Ehiza Federazioaren eta mandatua emandako entitatearen legezko ordezkariaren artean sinatutako hitzarmenaren bidez eratuko da. Hitzarmen horretan, ehiza elkarteak bere gain hartuko dituen betebeharrak jasoko dira, indarrean dagoen legediaren arabera exijigarriak diren beste bestelako betebeharrak alde batera utzi gabe.

Udalerrri berean elkarte bat baino gehiago balego, pasabideen antolakuntza eta zozketa zein elkartearen esku utziko duen erabakitzeko, Gipuzkoako Ehiza Federazioak berdintasuna eta bazterketarik ez egiteko printzipioak erabiliko ditu. Hala ere, kontutan hartuko dira elkarte bakoitzaren antzintasuna eta gaitasuna aginduko den jarduera gauzatzeko, baita ez betebeharririk lehenago ez egin izana, bai pasabidearen kudeaketarako elkarte bakoitzak bere gain hartutakoei eta bai foru agindu honetan edo indarrean dagoen legediaren ezarritakoaren arabera exijigarriak diren betebeharreri dagokienez.

3. Izendatutako elkarteak ematen zaion funtzioa onartzen ez badu, pasabidea kudeatzeko eta zozketatzeko gaitasunik ez badu, bere edozein betebeharra ez badu betetzen edo udalerrian ehiztari elkarerik ez badago, Gipuzkoako Ehiza Federazioak, aipatutako printzipioak errespetatuz, erabakiko du mugakide diren udalerrietako zein elkarteak hartuko duen bere gain pasabideen kudeaketa eta zozketa edo federakuntza berak gauzatuko ditu jarduera horiek.

4. Ehiza postuen erabilera ordenatua bermatzeko helburuarekin, izendatutako elkarteek pasabideen eta postuen kudeaketa eta zozketa jarduera horretan, Gipuzkoako Ehiza Federazioaren zuzendaritzaren eta kontrolaren pean eta bere instrukzio guztien arabera arituko dira beti.

5. Zozketetan eta ehizan parte hartzea kontrolatzeko eta hobetzeko neurri gisa, Gipuzkoako Ehiza Federazioak zozketa txartel bat emango du Federazioak kudeatutako zozketetan parte hartzeko aukera emango duena. Txartela hori lortzeko, beharrezkoa izango da ehiztariak eduki ditzala ehizan egiteko behar diren agiri guztiak, indarrean egon beharko duenak.

6. Antolakuntzaz arduratzen den entitateak Foru Agindu honetan ezarritako guztia eta indarrean dagoen ehizari dagokion legedian aurreikusitako beste betebeharrak betetzen direla zainduko du eta Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentuari jakinaraziko dizkio ikusten dituen irregulartasun eta arau hauste guztiak.

7. Gipuzkoako Ehiza Federazioak instrukzioak eman eta egoki iruditzen zaion informazioa eskatu ahal izango diete izendatutako elkartei, emandako jarduera hori zuzentzeko eta kontrolatzeko. Era berean, emandako jarduera zuzenean ikustatu eta aurkitutako akatsak zuzentzeko behar diren errekerimenduak egitea ahal izango du.

Ehiza elkarteak emandako jarraibideak ez badituzte betetzen, eskatutako informazioa ez badute ematen, egindako errekerimenduak ez badituzte betetzen edo indarrean dagoen ehizari dagokion legedian aurreikusitako beste edozein betebeharra ez badute betetzen, Gipuzkoako Ehiza Federazioak, eskuordeturiko elkarteari hamar eguneko entzute epea eman ondoren, eskuordetzea indarririk gabe utzi eta dagozkien pasabideen kudeaketa eta zozketa jarduerak zuzenean egin edo, lehen aipatutako printzipioak betez, beste elkarteari ardura berri bat eman diezaioke. Dena den, eskuordetzea indarririk gabe usten duen erabakia hartu aurreko edozein

unetan, Gipuzkoako Ehiza Federazioak eskuordetzea hori kautelaz etenda utzi ahal izango du ondoriorik gabe utziz, dagokion behin betiko erabakia hartu arte.

8. Gipuzkoako Ehiza Federazioaren ekintzak Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren aurrean errekurritu daitezke Euskal Kirol Federazioen 2006ko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14.4. artikuluan jasotakoaren arabera.

9. Lurraldeko Debekualdien Urteko Aginduan zehaztutako pase garaian eta artikulua honetan aurreikusitako moduan postuen antolakuntza eta zozketa egiten ez duten postuak ezingo dira baimendutako postutzat hartu. Ehiza debekatu egingo da bai postu horietan. Neurri hori ez da aplikagarria izango baimendutako ehiza barrutietan.

10. Gipuzkoako Ehiza Federazioak, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuari jakinaraziko dio lerro zozketen bukaera data. Data horretarik aurrera, Foru Agindu honetako 10. eta 11. artikuluetan ezarritakoa ez da aplikagarria izango.

12. artikulua. Eraikuntza.

Erregistroan ezarritakoaren arabera zenbakiturik egon behar dute postuek eta antolaketaren ardura duen erakundeak eraiki egin behar ditu, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak gainbegiratzuz alderdi tekniko eta estetikoak dagokienez.

13. artikulua. Kuotak.

Postuen eraikuntzak edota konponketak eta horien antolakuntzak eta zozketak sortutako gastuak indemnitzearren eta sortutako gastuen arabera, erakunde antolatzaileek proposatu dezakete Gipuzkoako Ehiza Federazioak kuota bat ezartzea eguneko eta postu bakoitzeko.

Horiek ikusita eta denboraldi bakoitza hasi aurretik, Gipuzkoako Ehiza Federazioak onartuko du, hala badagokio, eta proposamen bat aurkeztuko dio Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuari, behin betiko onar dezan, eta bertan kuotak, ordutegiak eta zozketari buruzko gainerako argibideak azalduko ditu.

14. artikulua. Zozketaren aldizkakotasuna, lekua eta eratzeko modua.

Ehiztariak, zozketetan parte hartzeko Gipuzkoako Ehiza Federazioak horretarako emandako zozketako txartela eduki beharko dute. Zozketen arduradunak sarrera debekatuko diote bere zozketako txartela aurkezten ez duen ehiztariari.

Zozketa horretan, ehiztaria bera edo bestela beste pertsona bat ordezkotzan egon daiteke. Pertsona horrek, Gipuzkoako Ehiza Federazioak emandako agiria erakutsi beharko du.

Dena den, zozketara joaten den pertsonak zozketan parte hartzeko txartel bat bakarrik aurkeztu dezake, bai ehiztaria bera baita joan ez den ehiztariaren ordezeko pertsona bada.

Izena ematerakoan, zozketa egiten ari den dataren marka egingo da zozketako txartelean.

Zozketak egunero egingo dira pase garaian eta erakunde antolatzaileak izendatutako lokal edo lekuetan. Zozketa egiterakoan behar bezala dokumentaturiko ehiztari guztien aukera berdintasuna errespetatu behar da.

15. artikulua. Postuaren frogagiria.

Zozketan postua tokatu zaion ehiztariak, zozketa egin eta berehala jasoko duen frogagiria aldean daramala egon behar du postuan eta zaintza lanetan aritzeko ofizialki gaituriko pertsonak eskatzen badio hura erakustera behartuta dago. Frogagiri horrek adierazitako egun osoan zehar ehizan aritzeko eskubidea ematen dio eta gehienez ere dagokion zozketako txartela duen lagun bat eramateko.

Zozketan postua tokatu zaion ehiztariak ez badu postua okupatzen, Gipuzkoako Ehiza Federazioak emandako zozketako txartela duen beste ehiztari batek okupatu dezake goizeko 10etatik aurrera, Foru Agindu honen 14. artikuluaaren arabera.

Dena den, postu bakoitzean, gehienez bi eskopeta kargaturik egongo dira.

Ehiza barrutietan, Ehiza Antolatzeko Planean ezarritakoaren arabera, ehiztariak ehiza aprobetxamenduko titularrak emandako ehizatzeko baimena eramango du, eta kargatutako hiru eskopeta egongo dira postu bakoitzeko, gehienez ere.

16. artikulua. Arau haustek.

Foru Agindu honen aurkako arau-haustek, Euskadiko Ehizaren 2/2011 Legeak ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabeturik geratzen dira foru agindu honetan eta bereziki Gipuzkoako lurralde historikoko aprobetxamendu komuneko ehiza lurretan kokaturiko ohiko pasabideetan uso migratzaileen ehiza arautzen duen 2007ko urriaren 25eko Foru Aginduan erabakitakoaren kontra doazen xedapenak.

Xedapen gehigarria. Inskribatuta dauden Gipuzkoako ohiko pasabideetako lerro eta postuak.

2007ko Foru Aginduak araututako erregistroan jasotako lerro eta postuen inskripzioek indarrean jarraituko dute Foru Agindu hau indarrean jarri arte.

Amaierako xedapena. Indarrean sartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.